

# Behin emakume bat...



Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntza

Gure historia eta ingurune hurbileko emakumeen bizi inspiratzaileen inguruan ikertuko dugu. Fanzinearen formatuarekin esperimentatuz, irudi eta hitzekin, haien istorioak kontatuko ditugu, oraindira ekarriz eta haien bizitzekin nahastuz.

## Helburuak

- Celia Viadaren lanera eta lan-prozesuetara hurbiltzea.
- Pertsona baten bizitzari buruz bakarka eta taldean ikertzea, hainbat angelutatik eta hainbat estrategia eta baliabide erabiliz.
- Gure inguruko edo historiako emakume garrantzitsuen, ezkutuko edo aitzindarien bizitzak aintzatestea eta balioa ematea.
- Fanzinearen adierazpen-aukerak esperimentatzea eta erabiltzea, kontakizunak egiteko bitarteko gisa.

## Erreferentziak

**Celia Viada Caso**

[La calle del Agua \(trailer\)](#)

[La calle del Agua \(entrevista\)](#)

**Tefi de Paz: Proiektuak-ikuskizunak**

[La Reina del Arga](#)

[Olvido Flores](#)

**Andrea Galaxina**

[Haz un fanzine empieza una revolución.](#)

[Guía personal para hacer un fanzine](#)

**Publikazioak**

[Herstory: Una historia ilustrada de mujeres](#)

**Liburu ilustratuak**

[Cuentos de buenas noches para niñas rebeldes](#)

**Emakumeen izenak dituzten kaleei buruzko albisteak**

[Los nombres de 10 mujeres represaliadas reclamarán igualdad y memoria desde las calles de Txantrea Sur](#)

## Proposamenaren garapena

### Aurkezpena

**1.** "La calle del agua" trailerra ikusten hasiko gara eta off-eko ahotsaren galderak ikasgelara eramango ditugu: *"Non hasi eta bukatzen da istorio bat, zein dira kontatzea merezi dutenak, hemen istorio txikiak daude oraindik, jada kontatzen ez direnak, eta jada iritsi ezin garen txokoetan galtzen direnak. ¿Nora eramaten nauzu, Benjamina?..."*

**2.** Galdera tipo hauekin lotu:

- Zer motatako kontakizunak bilduak izan dira Historia liburuetan? Nortzuk dira euren protagonistak? Zergatik uste duzue hau gertatu dela?
- Gure inguruko (iragan urrunekoak gutxi gorabehera) zein istorio eta bizitza inspiratzaileak ezagutzen ditugu? Zertan inspiratzen gaituzte? Nola izan dugu haien berri?

### Experimentación / Creación / Investigación

**1.** Azken galderatik eta haren erantzunetatik abiatuta, bizitza inspiratzaileetako gure ingurune eta historia hurbileko emakumeen ikerketa sakona abiatu. Adibide gisa, kasu zehatz bat aipatu daiteke: gure eskolari izena ematen dion pedagogo aitzindaria, funanbulista, gure hiriko kale bati izena ematen dion musikaria, etab.

**2.** Taldetan ikertu, haien inguruko informazioa iturri ezberdinetan bilatuz: familiarrei eta bizilagunei galdetuz, egunkarietan, interneten, etab. Bere biografiari, bizitzako gertaerei, lanbideari, lorpenei, gustuei, nortasunari buruzko material ezberdinak bildu. Izan daitezke: testigantzak, objektuak, irudiak, egunkarietako ebakinak, etab.

**3.** Erdiestutako materialak eta informazioa partekatu. Hortarako, informazioa harremanduko den ikusizko-mapa bat egin. Taldeka, hurrengo saioetan zein emakume/bizitza inguruan fanzinea egin nahi dugun adostu.

**4.** Hau egiteko, aurretik gure buruari galdetu:

- Zer nahi dugu bere bizitzaz kontatu; zer iruditzen zaigu interesgarriagoa edo nabarmengarriagoa? Honen arabera, haren biografia egin dezakegu, gertakari garrantzitsu batean zentratu, etab.
- Zein formatu erabiliko ditugu: komikia, kartel informazio-kartelak, ipuin ilustratuak, eskutiz-postalak, hibridoak.
- Zein teknika eta materialekin: collage, marrazketa, testua, irudiak, konbinazioak.
- Zein kutsu izango duen: umoretsua, informatiboa, poetikoa, intimo-pertsonala...
- Zein pertsonatik kontatuko dugun: hirugarren pertsonan, lehenengo pertsonan, bigarren pertsonan (bere bizitzan inplikaturako pertsona bat izango bagina bezala).

Paraleloki zereginean laguntzeko, komiki ezberdinak, fanzineak eta proiektuak ikus ditzakegu (erreferentziak ikusi).

**5.** Taldeka fanzineak egin, fotokopiatu eta non eta nori banatu nahi ditugun erabaki: eskolan, auzoan, udaletxean; ikerketan inplikaturako pertsonari, familiarrei, etab.

### Ondorioak eta ildo irekiak

Gure buruari galdetzen diogu: zein beste formatu eta disziplinekin emakume hauen bizitzak kontatu dezakegu? (dokumentala, antzerkia, instalazioa...). Formatu berriei esperimentatuz proiektuarekin jarraitzen dugu, emakume horiei edo ikerketetan agertutako beste batzuei buruz.